

CULTURA Y ELITES DE NAVARRA EN LA ETAPA DE LOS AUSTRIAS  
Ostolaza Elizondo, M. Isabel; Panizo Santos, Juan Ignacio  
20,00 euro

ERRONKARI IBARRA IZENA ETA IZANA. IBARREKO HISTORIAREN GAINEKO IKUSMIRA  
Hualde Gallego, Fernando (koord.)  
22,00 euro

HISTORIA DE NAVARRA MILENIOS DE CONVIVENCIA  
Fortún Pérez de Ciriza, Luis Javier  
3,00 euro

IRAKURKETAREKIN GOZATUZ. A EREDURAKO IRAKURKETA PROIEKTUA  
Zenbait egile  
15,00 euro

JAVIER, EL CASTILLO REDESCUBIERTO  
López de Aberasturi, Antón, eta Pérez Simón, Fernando  
25,00 euro

MANUAL DE DERECHO PÚBLICO DE NAVARRA  
Pérez Calvo, Alberto; Razquin Lizarraga, Martín M.  
15,00 euro

NUEVAS PERSPECTIVAS Y RETOS EN EL XXV ANIVERSARIO DEL AMEJORAMIENTO DEL FUERO  
Razquin Lizarraga, José Antonio (zuz.), eta beste zenbait  
15,00 euro

PLANES FUTUROS. ARTE ESPAÑOL DE LOS 2000, 4 DE OCTUBRE-16 DE DICIEMBRE DE 2007  
Kultura Zuzendaritza Nagusia-Museoen Zerbitzua  
18,00 euro

POEMA YORK  
Aldaya Marín, Daniel  
5,00 euro

RECUERDOS DE UNA GUERRA CIVIL. ALBUM DEL BLOQUEO DE PAMPLONA  
Urricelqui Pacho, Ignacio J.  
35,00 euro

REGISTRO DE MORBILIDAD ASISTIDA DE NAVARRA –REMA– INFORME 2005  
Arrazola Aranzadi, Ander (REMA)  
5,00 euro

SIGILO. LOS SELLOS DE LOS DOCUMENTOS  
Ochoa de Olza Eguiraun, Esperanza, eta Ramos Aguirre, Mikel  
5,00 euro

SOÑANDO JUNTOS. UNA APROXIMACIÓN AL TERCER SECTOR EN NAVARRA  
Castillejo Samitier, M. Jesús  
10,00 euro

TIERRA TE SEA LEVE, LA. ARQUEOLOGÍA DE LA MUERTE EN NAVARRA  
Zenbait egile  
20,00 euro

TINTAS Y PIGMENTOS. JORNADAS TÉCNICAS SOBRE RESTAURACIÓN DE DOCUMENTOS. PAMPLONA 23 Y 24 DE NOVIEMBRE DE 2006  
Zenbait egile  
12,00 euro

VASCONES, LOS  
Múgica, Matías  
2,00 euro

F0802812

**84/2008 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzuko zuzendariak emana, Ingurumen ukipenatarako baimena ematen duena, zenbait baldintzarekin, 13,2/20 kV-ko (D/C) aireko eta lurpeko linea elektriko bat instalatzeko, Cortesko industrialdea energiak hornitzeko. Sustatzailea Nasuinsa da.**

Abenduaren 26an, goian aipatutako proposamenari dagokion Ingurumen ukipenatarako baimena lortzeko eskaera sartu zen Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan, Cortesko industrialdean hornidurako linea elektrikoa jartzeko.

Proiektua Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legeko 2.C eranskineko I. atalean sarturik dago. Beraz, Ingurumen ukipenatarako baimena behar du.

Foru lege horren 28. artikulua ezartzen du eskaria aurkeztu eta lau hilabeteko epean Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak Ingurumen ukipenatarako baimena eman edo ukatzeko ebazpen arrazoitua eman duela.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak proposamenaren aldeko txostena egin du. Cortesko Udalak horren aldeko hirigintza txostena egin du.

Espedientean dauden txostenak ikusirik, eta aipatutako 4/2005 Foru Aginduaren 28.1 artikuluan agertzen diren eskumenak erabiliz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urriaren 10ean emandako 426/2007 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera nire esku baitaude,

#### EBATZI DUT:

1. Nasuinsari Ingurumen ukipenatarako baimena ematea, 13,2/20 kV-ko (D/C) aireko eta lurpeko linea elektriko bat instalatzeko, Cortesko industrialdea energiak hornitzeko

2. Baimena baldintza eta neurri zuzentzaile hauek betetzearen menpe ematen da:

–Sustatzaileak Ingurumen ukipenaren azterlanean agertzen diren neurri zuzentzaileak hartuko ditu.

–Egin nahi den jarduerak uki ditzakeen edo horren trabagarri izan daitezkeen azpiegitura eta bide-zorrei dagokienez, enpresa sustatzaileak behar diren baimen guztiak eskuratuko ditu kasuan kasuko gaien eskudun diren organoetan.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen eta espedientean interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, horren kontra gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Epeak ebazpen hau jakinarazi eta biharamunean hasiko dira kontantzen.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

5. Ebazpen hau Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari, Ingurumen Zaintzari, Cortesko Udalarri eta interesdunari igortzea, behar diren ondorioak izan ditza.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an.–Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendaria, Pedro Zuazo Onagoitia.

F0802837

## II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

#### ANTSOAIN

##### Antsoaingo udalerriko kaleen izendegia. Behin betiko onespina

Antsoaingo Udalak, 2007ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo udalerriko kaleen izendegia, 2008ko 8. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, urtarrilaren 18an argitaratu zena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz eta jendaurreko epea alegaziorik gabe iraganik, behin betiko onetsi da Antsoaingo udalerriko kaleen izendegia. Ondotik erantsi da haren testu osoa.

CALLES	KALEAK
AIZOAIN .....	AITZOAIN KALEA
AÑEZCAR .....	AÑEZKAR KALEA
ARTURO CAMPION .....	ARTURO CAMPION
AVENIDA DE VILLAVA .....	ATARRABIAKO ETORBIDEA
BALLARIAIN .....	BALLARIAIN KALEA
BERRIOBIDE .....	BERRIOBIDE KALEA
BERRIOPLANO .....	BERRIOBEITI KALEA
BERRIOSUSO .....	BERRIOGOITI KALEA
BERRIOZAR .....	BERRIOZAR KALEA
CANAL .....	KANALA KALEA
CANTERAS .....	HARROBIETAKO KALEA
CAPUCHINOS .....	KAPUTXINOEN KALEA
CARRETERA DE ANTSOAIN .....	ANTSOAINGO ERREPIDEA
CARRETERA DE ARTICA .....	ARTIKAKO ERREPIDEA

CALLES	KALEAK
DIVINA PASTORA .....	ARTZAINZTA JAINKOTIARRAREN KALEA
DORRONDEA .....	DORRONDEA KALEA
ELCARTE .....	ELKARTE KALEA
ERMITAPEA .....	ERMITAPEA KALEA
EZKABA .....	EZKABA KALEA
FUEROS DE NAVARRA .....	NAFARROAKO FORUEN KALEA
GRUPO SAN CRISTOBAL .....	SAN KRISTOBAL INDUSTRIALDEA
HERMANOS NOAIN .....	NOAIN ANAIEN KALEA
JOSE MARIA JIMENO JURIO .....	JOSE MARIA JIMENO JURIO KALEA
KATUARRI .....	KATUARRI KALEA
LAPURBIDE .....	LAPURBIDE KALEA
LARRAGUETA .....	LARRAGETA KALEA
LARRAZKO .....	LARRAZKO KALEA
LERIN .....	LERIN KALEA
LOZA .....	LOTZA KALEA
MENDIKALE .....	MENDIKALE KALEA
NAVARRA .....	NAFARROA KALEA
OSTOKI .....	OSTOKI KALEA
PARQUE ZELAIA .....	ZELAIA PARKEA
PLAZA NUEVA .....	PLAZA BERRIA
PLAZA CONSISTORIAL .....	UDALETXKO PLAZA
PLAZA EUSKAL HERRIA .....	EUSKAL HERRIA PLAZA
PLAZA RAFAEL ALBERTI .....	RAFAEL ALBERTI PLAZA
PLAZA SOROKO .....	SOROKO PLAZA
QUINONES .....	KIÑONEN KALEA
RIGOBERTA MENCHU .....	RIGOBERTA MENCHU KALEA
SAKANPEA .....	SAKANPEA KALEA
SAN COSME Y SAN DAMIAN .....	KOSME ETA DAMIAN SANTUEN KALEA
TRAVESIA CANTERAS .....	HARROBIETAKO ZEHARKALEA
TRAVESIA LERIN .....	LERIN ZEHARKALEA
TRAVESIA MONTEJURRA .....	JURRAMENDI ZEHARKALEA
TRAVESIA TOMAS DE BURGUI .....	BURGIKO AITA TOMAS ZEHARKALEA

Antsoainen, 2008ko otsailaren 20an.–Alkatea, Antonio Gila Gila.

L0802787

## ARAKIL

### Ordenantza, Arakilgo Udaleko uraren behe hornidura arautzen duena. Hasierako onespina

Arakilgo Udalak, 2008ko otsailaren 4ko osoko bilkura berezian, Arakilgo Udaleko uraren behe hornidura arautzen duen ordenantza hasiera batez onestea erabaki zuen, besteak beste.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu erabakia jendaurrean egonen da hogeita hamar egun balioudunean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hasita, interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Arakilen, 2008ko otsailaren 14an.–Alkatea, Javier Lazcoz Olaechea.

L0802926

## DONAMARIA

### Udal Planeko aldaketa xehaketa. Behin betiko onspina

Udalak, 2007ko maiatzaren 25ean egin osoko bilkura arruntan, honako erabaki hau hartu zuen:

Hasiera batez onestea Donamariako Udal Planeko aldaketa. Aldaketaren bitartez artikuluko bakarreko ordenantza bat onetsi da Udal Planaren barrenean, honela dioena:

"Donamariako udal mugapean debekatuta daude eguzkitiko instalazio fotovoltaiakoak eraikin guztien estalkietan, industriako erabilera duten hirilurreko eremuetan izan eziz.

Debeku hori eraikin berrietan eta zaharberritu edo aldatzen direnetan aplikatuko da".

Espediente jendaurrean egon zen hilabetez, 2007ko 102. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, abuztuaren 17koan, probintziako egunkari batean eta iragarki oholean argitaratuta. Epe horretan ez zen erreklamazioirik edo iradokizunik aurkeztu.

Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak adostasun txostena eman dio Udalak hasiera batean onetsitako aldaketa. Espedienteaz: 2007/299505.

Hori guztia kontuan hartuz eta gaiari buruzko bozketa eginez, Udalak, 2008ko otsailaren 8ko osoko bilkuran, honako erabaki du aho batez:

- Behin betikoz onestea Udalak Udal Planean sustaturiko aldaketa.
- Behin betiko onspina hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

3. Onetsitako aldaketa buruzko dokumentuaren ale bat igortzea, behar bezala eginbidetua, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura (81.3 artikulua, 35/2002 Foru Legea).

Donamarian, 2008ko otsailaren 18an.–Alkatea, Rikardo Sagaseta Andiarrena.

L0802768

## FUSTIÑANA

### Ordenantza fiskala, udal ludoteka erabiltzeko tasak arautzen dituena. Behin betiko onspina

Fustiñanako Udalak, 2007ko azaroaren 30ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea udal ludoteka erabiltzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala (2008ko 6. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara, urtarrilaren 14an).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Fustiñanan, 2008ko otsailaren 19an.–Jarduneko alkatea, Ignacio Bienzobas Blasco.

### ORDENANTZA FISKALA, FUSTIÑANAKO UDAL LUDOTEKA ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

#### Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraikiz.

#### Zergapeko egintza

2. artikulua. Haurren eta nerabeen gurasoek edo tutoreek Fustiñanako udal ludotekan egindako inskripzioa eta matrikulazioa da zergapeko egintza.

#### Subjektu pasiboak

3. artikulua. Subjektu pasiboak dira eta, zergadun diren aldetik, tasa ordaindu behar dute adingabekoen inskripzioa eta matrikulazioa Fustiñanako Udalaren jarraibideen arabera egiten dituzten gurasoek edo tutoreek.

#### Kuota

4. artikulua. Subjektu pasiboak ordaindu beharreko kuota diru zenbateko finkoa izanen da, eta Udalak urtero zehaztuko du, osoko bilkuran eta tarifak onesteko erabakiaren bidez, betiere egiten den zerbiztuaren edo jardueraren kostua kontuan harturik.

#### Ordainketa

5. artikulua. Urtero ordainduko da kuota, urte hasieran ordaindu ere, urtarrilaren 30a baino lehen.

#### Arau-haustea eta zehapenak

6. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Fustiñanako Udalaren Ordenantza Fiskal Orokorraren IV. kapituluan xedatutakoa aplikatuko da bai eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 93. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa ere.

Tarifa: 12,00 euro urtean.

Ordenantza honek 2008. urteko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

L0802783

## ZANGOZA

### 2008ko ekitaldirako aldaketa, ordenantzetako tasa eta prezio publikoetan. Behin betiko onspina

Jendaurreko aldia inork alegazio eta erreklamazioirik aurkeztu gabe iraganenez, behin betikoz onetsirik gelditu dira 2008ko ekitaldirako aldaketak, ordenantzetako tasa eta prezio publikoetan. Horrenbertez, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

#### KIROLEN UDAL PATRONATUA

–Urteko abonua (igerileku estalia + hidrotterapia + frontoia udako instalazioa + beharpena jardueretan eta fitness gelan):

KATEGORIA	MATRIKULA	HILABETE ARRUNTA	HILABETE, URTEKO KON.
Helduak .....	54,29	21,72	19,91
Haurrak .....	27,15	10,87	9,96
Gazteak .....	40,73	16,28	14,92
65 urtetik goitikoak .....	27,15	10,87	9,96
Elbarriak .....	13,58	10,87	9,96
Familiarra .....	72,40	43,44	39,82